



Sanjoanetako batel estropaden finala, erabakita

TOLOSA ▶ Gaztelu-Ibarra A eta B, Txinparta, Ake Izaskun Orbela, Ortzadar eta Emendek sailkatu dira mutiletan, eta Ibarra, Laier taberna, Ake Izaskun 66 taberna eta Ttantomto Benta Haundi taldeak nesketan ▶ 2



Ikusmin handia piztu zuen sailkapen probak; mutilen sei taldeek eta nesken laurek igandean jokatu dute finala, 12:00etan. MADDI SOROA

MADDI SOROA



Aranalde eta Alkorta ere, Gipuzkoako Sega Txapelketako finalera

TOLOSALDEA ▶ Zizurkilen lortu dute txartela gazteluarrak eta asteasuarrak; kanpoan geratu da Mikel Dorronsoro ikaztegiatarra ▶ 3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Harri-jasotzaile Berria Txapelketa irabazi du Urrutia leitzarrak

Urrezko Aizkolari Txapeladunen Ligako buru da jada Arrospide leaburuarra ▶ 7


badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

Zure etorkizunak
kontaktzen du



MATRIKULA ZAITEZ

Berrio pasalekua, 90 - Donostia
Tfn. 943 316 900 - www.cebanc.com



**ERDI ETA GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK**

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Zuzeneko arria
- Sukaldaritza
- Decogintza eta ekigintza
- Ostalo arria
- Bida agentziak
- Turismo informazio eta merkataritza

INFORMATIKA

- Informetika-sistemak administratzen
- Lurra maiztasun aplikazioen garapena
- Sistema informetikoak ustaltzerak

MERKATARITZA ETA MARGINETA

- Nekezkeria-merkatariak
- Merkataritza-kulaketa eta merkataritza
- Merkataritza

ADMINISTRATZIOA

- Administrazio eta finantza (A eta DE)
- Idazkeritza
- Administrazio-kulaketa

LANBIDE HASTAPENEN IKASTURTEA



SANJOANAK ▶

Estropadetako finalistak, erabakita

Mutiletan sei batel eta nesketan lau sailkatu dira datorren igandean izango den finalerako, 12:00etan, Orian

NOELIA LATABURU

Igandea goibel esnatu bazen ere, egunean zehar izandakoak eman zioten kolorea herriari. Guztietan nagusia eguerdi partean Oria ibaiko uretan barrena eginiko San Joan batel estropaden sailkapen proba izan zen. Jende mordoak hurbildu zen batelek egin beharreko ibilbidearen ingururaino, lasterketaren nondik norakoak jarraitzeko. Bost txandatan lehiatu ziren parte hartu zuten 21 batelek, eta erlojuaren kontra bi ziaboga egin behar izan zituzten.

Nesketan 4 batel sailkatu ziren —Ibarra, Laier taberna, Ake Izaskun 66 taberna eta Ttantomto-Benta Haundi— eta mutiletan, berriz, sei —Gaztelu-Ibarra A, Gaztelu-Ibarra B, Txinparta, Ake Izaskun Orbela, Ortzadar-Arco Iris eta Emendek—. «Maila altua» izan zen batelen artean eta «denbora bikainak» lortu zituzten. Hurrengo hitzordua datorren igandean izango dute, non irabazleak ezagutuko diren, 12:00etatik aurrera, Orian. Ikuskizuna, beraz, ziurtatua dago Koadrilen Egunerako.

Eta San Joan jaien atarian kirol gehiagoz gozatzeko parada izan da pasa den asteburuan. Hala, larunbat iluntzean jokatutako 3x3 saskibaloi txapelketan hiru talde suertatu ziren

BATEL ESTROPADA ▶

MUTILAK

Taldea	Denbora
1. Gaztelu-Ibarra A	4'35"05
2. Gaztelu-Ibarra B	4'48"64
3. Txinparta	4'49"00
4. Ake Izaskun Orbela	5'02"15
5. Ortzadar-Arco Iris	5'03"45
6. Emendek	5'08"88

NESKAK

Taldea	Denbora
1. Ibarra	5'14"05
2. Laier taberna	5'21"29
3. Ake Izaskun-66 taberna	5'29"86
4. Ttantomto-Benta Haundi	5'42"75

3X3 ▶

HELDUAK

1. El que tuvo retuvo
2. Lulaleilo
3. Bakoitzak berea

irabazle, El que tuvo retuvo, Lulaleilo eta Bakoitzak berea, hurrenez hurren.

Zesta-puntan, Tolosa Saria

Bestalde, ostiralean zesta-puntako Tolosa Saria izan zen ikusgai Beotibar pilotalekuan. Lehia handiko norgehiagoka espero zuten bertaratuek. Aurrez aurre maila handiko bi bikote: Konpa eta Goitia (urdinez



Jende ugari azaldu zuen interesa Orian lehiatutako batel estropadetan. MADDI SOROA

eta Odriozola eta Arriaga (gorritz). Aurreikuspenak bete-betean gauzatu ziren eta azken txanpara arte ez zen partida erabaki, zaletuen gozagarri. Horrenbestez, azken emaitza 35-26koa izan zen Odriozola eta Arriagaren alde, amaieran izandako joko bolada onari esker.

Hala ere, partidaren lehen tantoetan urdinak izan ziren nagusi. Konpak «aurrealdean erakutsitako joko biziak bul-tzatuta». Aitzitik, Igor Odriozola anaioetarrak, herrikideen animoek lagunduta, Konparen jokari gailentzen hasi zitzaion eta partidari buelta ematea er-

dietsi zuten gorriek. Orduz gorritik, markagailuan aurretik izan ziren, beti ere alde handiegirik lortu gabe. Izan ere, partida erabakitzeko bidean izango zirela ematen zuenean (16-11), urdinek amore emango ez zutela berresten zuten eta hainbat berdinketa erdietsi zuten: 17-17koa eta 22-22koa.

Partidaren bukaera bikaina egin zuten irabazleek. Aurrean, Odriozolak «etxean jokatzearen motibazioak handituta ziharduen» eta tanto ederrak akats gutxirekin tartekatuz zituena, antolatzaileek jakitera eman dutenez. Konpak, berriz, hasieran nagusi izan arren,

partida osoan ezin izan zuten Odriozolaren joko garaitu. Atzean, bi atzelariak txukun aritu ziren, baina Jon Arriagaren mailak gorrien garaipena indartzen lagundu zuen azkenetako Pare bat tanto egin eta hiru berresten zuten eta hainbat berdinketa erdietsi zuten: 17-17koa eta 22-22koa.

Odriozola «pozik» zen garai-penarekin, eta herrikideen babesa eskertu zuen. «Markinan Goitiarekin gertatu antzera, hemen ere jendeak ni babestu nau gehien eta horrek ere laguntzen du».

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Abaltzisketa. Oso tamaina politeko baserria salgai.

Alegia. Taberna alokairuan, informazio pertsonala.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe

bifamiliarra salgai. 4 solairu.

Oso bista onak.

Amezketak. 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.

Amezketak. Etxe atxikia salgai.

Anoeta. San Joan. Eraikuntza nahiko berriko duplexa. Garaje itxiarekin.

Anoeta. Marban dagoen taberna-jatebidea alokairuan.

Informazio pertsonala.

Areso. Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko partzela salgai.

Belautntza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

Hernalde. Etxe bifamiliari ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai.

Ibarra. San Inazio auzoa. Hiru

logela, egongela, sukalde eta bainugela. 228.385 euro.

Ibarra. Euskalerrria kalea.

Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Berokuntzarekin.

Ibarra. Etxe adosatua salmantan. Oso egoera ona.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Ikaztegieta. Eraikuntza nahiko berriko 170 m²ko duplexa.

Leaburu bidean. 600 m²ko pabilioia, bi solairuetan banatuta, 2.500 m²ko zelaiarekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela.

Sartzeko moduan. 198.335 euro.

Tolosa. Erdialdean, eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelekin.

Terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosa. Santa Klara, berrituriko etxebizitza, 2 logelekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 165 m²ko etxebizitza salmantan.

Trastelekuarekin.

Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, egongela, sukalde eta bi bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m². 2 eta 3 logela,

sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berritua.

Estreintzeko.

Tolosa. Araba etorbidea, 4 logela, egongela, sukalde, 2 bainugela. 25 m²ko trasteleku eta garajea.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukalde, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje ibxia.

Tolosa. San Frantzisko Ibilbidean

120m²ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Zizurkil. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40m²ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Usabai. 2.000 m²ko pabilioi industrial alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 m² beheko aldean eta 148 m² goikaldean. Prezio interesgarria!

Zizurkil. Etxe atxikia salmantan oso egoera onean.

Zizurkil. Etxe bifamiliari ederra salgai. 4 solairu.

Villabona. 3 logela, sukalde, egongela eta bainugela. Balkoi ederra. Dena kanpoaldera.

Etxebizitza erabateko obra behar du. Eraikuntza guztiz berritua dago eta igogailu du.

ANOETA ▶ JAIK



Jende ugari elkartu zen Korpus jaietako azken egunean

Erredakzioa ▶ Ekitaldiz betetako asteburua izan zen Anoetako jaietan. Herenegun, Udalak antolatutako ekitaldietan, jende ugari bildu zen bai sagardo dastaketara, herri kirolen erakustaldian eta baita Alurr dantza taldearen emanaldian ere. Herri Borondatearen

Aldeko Jaietan *ENHA* egin eta *erabili* ekitaldia egin zuten eguerdian, eta afariarekin eman zieten amaiera aurtengo jaietara. Orain, San Joan inguruko ekitaldien zain gelditu beharko dute anoetarrak jai giroan jarraitzeko. **MADDI SOROA / HITZA**

MUSIKA ▶

Loatzokoen kontzertuak ikasturtea amaitzeko

ERREDAKZIOA

Loatzo musika eskolako ikasleak ikasturte amaierako kontzertuak eskaintzen ari dira. Gaur, Ibarran emanaldia eskainiko dute, 19:00etan, elizan. Villabonan audizioa egingo dute Musika Etxean, 19:00etan. Bihar, Alegian izango da kontzertua, 18:00etan, Kultur Etxean.

SEGA ▶

Aranalde eta Alkorta, finalera

Gazteluarrak eta asteasuarrak lortu dute Gipuzkoako Segá Txapelketako finala jokatzeko txartela

IMANOL GARCIA

Mikel Aranalde gazteluarra eta Mikel Akorta asteasuarra sailkatu dira Gipuzkoako Segá Txapelketako finalean aritzeko. Andoni Dorronsoro ikaztegi-tarrak hurrengo urtera arte itxaron beharko du. Aranalde izan zen kilo gehien moztu zituena Zizurkilen, eta Alkorta 200 kilo inguruko alde eta Dorronsorori 400 kilo inguruko kentu zizkien. Azken honek 40 kiloko zigorra jaso zuen.

Alkortak *HITZARI* adierazi dionez, «oso gustura nago egindako lanarekin. Faborito Aranalde zen eta bigarren postua egitea lortu dut». Lehenengo aldia zen asteasuarrak parte hartzen zuena txapelketa bate-

an eta hasieran «urduri xamar» ekin bazioen ere, lana egin ahala lasaitzen joan zen. Orain, datorren igandean Oiarzungo Pikoketan egingo den finalean «lan txukuna» egiteko asmoa du.

Zuriarriek, zorterik ez

Euskal Herriko Segá Txapelketako kanporaketa jokatu zuen larunbatean Andoni Zuriarri amasarrak, eta ezin izan zuen aurrera egin. *HITZARI* azaldu dionez, «egindako lanarekin oso gustura nago, baina ez dut zorterik izan zozketarekin». Amasarrari egokitu zitzaizkion sailak ez ziren batera onak izan eta egindako lanak ez zuen behar bezalako emaitza eman.



Mikel Alkorta eta Andoni Dorronsoro, bigarrena eta hirugarrena, herenegungo kanporaketan. **MADDI SOROA**

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Harreragileak, telefonistak, atezainak. Plazak libre.

Eskakizuna: Eskola Agiria. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Plazak libre.

Informa zaituzte. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil eta Mendaroko

udaletxeetarako behar dira. 943 31 37 82.

Lanbideetako ofizialak. Pintoreak,

mekanikoak, elektrikariak, arotzak, igeltseroak behar dira. Mugagabeko kontratua. 943 31 37 82.

Basozainak. Plazak libre Foru

Aldundirako, udaletarako, Eusko Jaurlaritarako. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak

udaletarako, ikastebeetarako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gidariak. Plazak libre betetzeko

behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Bergaran, Hernanin eta

Errenterian peoiak, garbitzaileak eta lorezainak behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Lanpostu

finkoak betetzeko plazak libre. Informazioa doan 943 31 37 82 zerbakian



Irurako Udala

IRAGARKIA

Honen bidez jakinarazten da Udala honek ondorengo kontratazioak egingo dituela, INEMekin elkarlanean, 2006ko Enplegu Sustapeneko Programaren barruan:

-Hiri-mantenimendurako peoiak; jardunaldi erdia.

-Gizarte dinamizatzailea; jardunaldi erdia.

Kontratuok 6 hilabete iraungo dute.

Interesatuak Tolosako INEMeko bulegora joan beharko dute.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 19tik 23ra artekoa da, biak barne.

Iruran, 2006ko ekainaren 19an

ALKATEA

Gaztea bazara eta zure herri historia ezagutu, ingurumenaz gozatu eta abenturazko udan murgildu nahi baduzu:

Uzturreko gazteluaren mistria, gazte auzolandegia

Txandak: uztailak 3-14 / 17-28 • Adina: 15-20 urte
Astegunetan goizetan arkeologia jarduerak eta eguerdian bazkaria
Prezioa: 125 euro • Plaza mugatuak

Abuztuan Edurne Pasabanekin aste beteko egonaldiaz gozatu eta Pirinioetan, natur parkeak ezagutzu, mendi igoerak eta abentura kiroletan parte hartu.

Informazioa: Ingurumen saila Tolosako Udala / www.kutxasocial.net / Aranzad 943 46 61 42

ALEGIA ▶ ARRANTZA



Anai arrantzale bikainak

N. Urbizu ▶ Oria ibaieko XXXII. Infantil mailako Arrantza Txapelketan bi anai alegiar ibili ziren. Bigarren saria eskuratu zuten amuarrainetan: benjaminetan Beñat Lasak, eta alebinetan Eneko Lasak. Barboetan, Beñatek hirugarren saria eskuratu zuen, eta Enekok, aldiz, lehendabiziko saria. 55 arrantzale gazte bildu ziren, eta osotara 93 amuarrain eta 202 barbo arrantzatu zituzten. HITZA

AMEZKETA ▶

Herriko musika
eskolako ikasleen
emanaldia

Ostegunean, 16:00etan, Amezketa Zumadi eskolako musika eskolakoek jaialdia egingo dute. Eskolan bertan dagoen aretoan eskainiko dute emanaldia. Bertan, bai eguneko artistentzat eta baita entzuleentzat ere merienda izango da.

IKAZTEGIETA ▶

Harrizko
Monasteriora
doaz jubilatua

Bihar, 06:30ean, Ikaztegieta-ko jubilatuek bidai bat egingo dute Zaragozara (Espainia). Tuteran (Nafarroa) gosaldia eta Calatayudeko Harrizko Monasteriora bisitatu dute. Bazkaldu ondoren, Zaragozan bertan pasatuko dute arratsaldea.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Altua, igogailuarekin. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua. Trastelekua. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 47m2 erabilgarri dituen apartamentua. Sartzeko prest. Igogailuarekin. 29.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Aukera! Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela dituen etxebizitza ederra. Ezin hobea. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Egoera ona. Oso eguzkitsua. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 160 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 3 bainugela. Garajea. Terraza. Berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bi bainugela. Igogailua. 46.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. 32.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Eraikuntza berriko etxe ederra. Informa zaitez! Etxesagasti. 943 69 68 56.

ABALTZISKETA ▶ JAIK

Zazpigarren Zaldi
Lasterketa egingo
dute sanjoanetan

Herriko festen egitarauaren barne antolatutako kirol jardunaldian Amezketatik Abaltzisketarako bidea igoko dute



Duela zazpi urte hasi zuten San Joan jaietan zaldi karrerak egiten. MAIDER JAUREGI

NEREA URBIZU

San Joan egunarekin batera, hainbat herritako festak hasen dira. Abaltzisketako kasua da horietako bat. Dena dela, bada beste herrietan egiten ez den zerbait Abaltzisketan: zaldi lasterketa, hain zuzen ere.

Abaltzisketako jaien egitarauaren barne Zazpigarren Zaldi Lasterketa egingo duteigandean, 18:00etan. Amezketatik aterako dira zaldi lasterkariak, Abaltzisketaraino igotzeko. Bi kilometro eta erdiko igoera da aldapa.

Amezketatik Abaltzisketarako errepidea moztu egingo

dute, lasterketak irauten duen bitartean; hau da, gehienez ere 20 minutuz. Bertara proba hasi baino lehenago azaltzea komeni da, hala, antolatzaileek proba hobeto bideratu ahal izateko.

Sariak ere izango dira zaldi lasterketan: lehenengo zortziek dirua jasoko dute, festetako antolatzaileei eta hainbat babesleei esker.

Momentura arte zortzi bat zaldun ibiliko dira lehian, igoera zeinek lehenago burutu. Lehenengo urtean 17 bat zaldi bildu ziren igoera egiteko.

DATUAK ▶

Ondua. 18:00etan.
Lekua. Amezketatik Abaltzisketara doan bidegurutzean.

lbilbidea. Amezketatik Abaltzisketara doan bidea.

Distantzia. Bi kilometro eta erdi.
Izen-ematea. 605 75 67 43 telefono zenbakian.
Saria. Lehenengo zortzientzat, diru saria.

parte hartzeko prest egongo direnak, alegia.

Izena emateko hurrengo telefono zenbakira deitu behar da: 605 75 67 43. Ahalik eta azkarren egitea eskatu dute antolatzaileek. Jende guztia animatu nahi dute hitzordu honetan parte hartzera.

Lasterketara doazenezat

Proba hauetan ohituak daudenei zuzendutako lasterketa da honakoa. Inguruan hainbat zaldun dagoela jakina da, Abaltzisketako lasterketan

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Pisua. Leitzan 100m2ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Deitu 699 46 13 65 telefonora.
Etxebizitza. Etxebizitza salgai, Berrobin. 29 milioi eta erdi, negoziagarria. 618 83 32 56.

LANA

Sukaldari laguntzailea. Amasan, sukaldari laguntzailea behar da asteburuetarako. 943 69 12 10.
Tabernaria. Villabonako taberna baterako neska euskalduna behar da, 15:30etik 22:30era. Igandeetan jai. 650 48 79 34.



• Dietak:
jarraipen eta berme
osoarekin
(dieta errazak)

- Haurrentzako osagarriak
- Haur elikadura
- Dermokosmetika

lurre auzoa, 7 (Maxi-Eroski parean) • 20400 Tolosa
Tel.: 943 57 95 28

Ondoren ordaintzeko etxeko produktukin batera alta ematen duten Euskaltel Hautaketa edo Euskaltel Leihoko bezeroentzat balio du susatzen ironek, izakinak agortu arte iraungo du. *8 hilabete irauteko konpromisoa. Muga: 1.500 alt.



ESKURATU MOMOKAPAK-A

Euskaltelen MOMOKAPAK-a: Kukuxumusuk diseinatutako Motorola mugikorra, Motxila eta Kamiseta,

Iritsi da uda honetako sukarraldi berria: Momokapak-a. Euskalteko mugikor bat kontratatzen baduzu, modan nor dagoen eta nor ez erabakitzen duen pack-a eskuratuko duzu: **Momokapak-a**: Motorola L2 ultramehea, eta Kukuxumusuren irudiak dituzten motxila bat eta 2006ko Tourreko marea laranjako kamiseta bat. Eta hori guztia 19€ bakarrik ordainduta. Azkar, eskuratu Momokapak-a.

Eskatu informazioa Euskaltelen saltokietan.

19€
bakarrik ordainduta.



MOTOROLA L2
- Ultramehea.
- Kukuxumusuren irudiekin.
- Kepa Junkerak Tourrerako prestatu duen soinu-bandaren melodia du.



MOTXILA
Kukuxumusuren irudi eksklusiboekin.



KAMISETA
2006ko Tourreko marea laranjaren kamiseta, Kukuxumusuren diseinuekin.

IBARRA ▶ EUSKARA

Euskara zerbitzuak bere irudia izan dezan lehiaketa egingo dute

Logotipo Lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna hilaren 26a izango da; 600 euroko saria jasoko du irabazleak

EUSKARA ZERBITZUAREN LOGOTIPO LEHIAKETA ▶

OINARRIAK

Parte-hartzaileak. Nahi duenak har dezake parte.
Irudia. Logotipotzat joko da Udal sailaren orde erabili ahal izango den edozein irudi piktoriko edo grafiko.
Diseinua. Sinboloak diseinu librea izango du, originala eta ezezaguna; osorik edo zatika argitaratu ez dena. Saritutako edo argitaratutako lanak aurkeztuz gero, lehiakidea baztertua izango da.
Teknika. Edozein diseinu teknika erabili ahal da; hala ere, gomendagarria da euskarri informatikoa erabiltzea. Guztiz baztertuak gelditzen dira olio-pinturarekin, urmargoekin edo erreproduzitzeko zaila den teknikekin egindako lanak.
Entregatu beharrekoa. Lehiakide bakoitzak gehienez 2

lan aurkeztu ahal izango ditu. Diseinu bakoitzaren 3 ale aurkeztu beharko dira A-4 paper-formatuan, eta horrekin batera, bere erreproduzizioa bermatzen duen formatu digitalean edo euskarri informatikoan. Nahi izanez gero, lanaren ulerkuntza eta ebaluazio hobea egiteko, logotipoekin batera azalpentxo bat ere erantsi ahal da.
Aurkezpena. Lanak entregatzeko azken eguna hilaren 26a izango da. Etiketatun gutunazal handi batean sartuta aurkeztuko dira. Azalean Euskara Zerbitzuaren Logotipo Lehiaketa agertu behar du, parte-hartzailearen leloa edo ezizenarekin batera. Barruan lelo edo ezizen bera duen gutunazal txikiago baten barruan parte-hartzailearen

izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina jarriko dira. Proiektuak aurkezteko hautatutako euskarrietan ere leloa edo ezizena jarri beharko da, bai eta A-4ean ere; kasu honetan, atzealdean. Proiektuak posta zertifikatu bidez edota Udaleko erregistroan entregatu ahal izango dira.
Epaimahaia eta epaia. Epaimahaia Euskara eta Hezkuntza batzordeak izendatutako kideez osaturik egongo da eta bere epaia apelazina izango da. Emaitzaz uztailaren 7an emango da jakitera. Epaimahaia saria hutsik utzi eta beste lehiaketa bat deitzeko eskubidea berarentzat gordetzen du.
Saria. 600 euroko saria jasoko du irabazleak.

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusiaren baitan (EBPN), bere irudia izango den logotipoa aukeratu nahi du, eta horretarako lehiaketa antolatuko du. Logotipo bat hautatuko dute lehiaketaren bidez, eta irudi hori, informazio zabalpean, dokumentu ofizialetan, web orrian eta publizitatean ere erabiliko du Udalak.

Lehiaketa irekia izango da, hau da, nahi duenak hartu ahaliko du parte, eta datorren astelehena bitarte, hilaren 26a, izango da lanak aurkezteko epea. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere 2 lan aurkeztu ahal izango ditu, eta irabazleak 600 euroko saria jasoko du. Euskara eta Hezkuntza batzordeak izendatutako epaimahaia irabazlearen izena uztailaren 7an emango du jakitera. Halaber, epaimahaia saria hutsik utzi eta beste lehiaketa bat deitzeko eskubidea izango du. Bestalde, jakitera eman duenez, Logotipo Lehiaketan aurkeztutako irudiekin erakusketak bat antolatzeke eskubidea ere izango du Ibarrako Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Lehiaketaren inguruan argibide gehiago nahi dituztenek Ibarrako udaletxeko informazio leihatilara, Euskara Zerbitzura edota www.ibarrakoudala.net webgunera jo ahal izan dute.

TOLOSA ▶

Egoera politikoaz batzarra, bihar Kultur Etxean

Bihar, 20:00etan, batzarrera deitu du Tolosako Batasunak, Kultur Etxean. Egoera politikoaz eta aurrera begirako urratsez ariko dira.

TOLOSA ▶

Txilipurdika ludotekan izen-ematea

Ostirala, hilaren 23a, izango da Galtzaundi Euskara Taldeak uztailaren 3tik 28ra Kultur Etxean antolatutako Txilipurdika ludotekan izena emateko azken eguna. Ludotekaren helburua, 3 urtetik 10 urte bitarteko haurrek ondo pasatzea da, eta horretarako, ekintza ezberdinak antolatuko dituzte, hala nola, irteerak, jolasak, festak, igerilekua, ipuin kontalaria, merienda.... Izen-ematea, Galtzaundiren egoitzan edota 943 65 50 04 zenbakian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ **Taxia:** 670420
 - ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016
- Besterik.**
- ▶ **Ertzaintza:** 538820
 - ▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
 - ▶ **Tolargi:** 650016
 - ▶ **Iurramendi egotiza:** 670325
 - ▶ **Tolosa gasa:** 675320

IBARRA ▶ GAZTE FESTAK

«Jende ugari eta giro ona nagusi»

Gaspe Asanbladako kideak gustura azaldu dira aurtengo jaiek izan duten harrerarekin

I. TERRADILLOS

Herenegun amaitu ziren aurtengo Ibarrako Gazte Festak hiru eguneko etengabeko jaieren ostean. Ibarrako Gazte Asanbladak balantze ona egin du: «Gustura gaude, dena ondo atera baita».

Igandeko gitarauak larunbateko gauarekin izan zuen segida; izan ere, parranda luzatu eta gaupaseroak poteoan aritu ziren goizean zehar. Hurrengo hitzordua Xepla elkartean egin zuten herriko gazteek, bazkaria baitzuten prest. 40 lagun inguru elkartu ziren bertan. Eta agurrerako, berriz, musika. Igandea izanik ez zuten jende gehiegirik espero, baina Habebas Corpus taldea zuzenean entzutera jende ugari joan zen Gaztetxera. «Bete egin zen, eta



40 lagun bildu ziren gazte bazkaria, herenegun. MADDI SOROA

kontzertua oso ona izan zen». Gainerako egunetan ere, jende ugari joan da bai Ibarrako plazara, bai eta Gaztetxera ere. «Agian, ostiralean euriagatik

jende gutxiago izan zen, baina oro har, eta batez ere larunbat gauean jendez lepo izan zen», azaldu dute, gustura, Gazte Asanbladako kideek.

Irurako Udala

IRAGARKIA

Honen bidez jakinarazten da Udal honek ondorengo kontratazioa egingo duela:
Lanpostua: 1 langile anitza
Kontratu mota: Obra edo zerbitzu jakina.
Erabiliko den tresneria:
Esku lanabesa
-Gitaraua: Konponketa desberdinak
Baldintzak:
2006-1-lean Iruran errotatua egotea.
-Gidatzeko agiria: B-1.
Kontratuaren iraupena: 6 hilabete.
-Lanegunak: Asteleheneetik ostiralera.
-Ordutegia: 08:00etatik 15:00etara.
-Soldata: 1.300 euro hilean.
IZENA EMATEKO BULEGOA:
Udalteko bulego orokorra.
-TELEFONUA: 943 69 13 33
Faxa: 943 69 33 41
ESKAERAK:
Epea:
Ekainaren 19tik 22 arte, biak barne.
Azterketa:
Ekainaren 23an 10:00etan.
Iruran 2006ko ekainaren 16a.
ALKATEA

HERRI KIROLAK ▶

Harri-jasotzaile Berria Txapelketa irabazi du Urrutiak Agirrerekin

Arrospide leaburuarrak lortu ditu puntu gehien Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligako lehen saioan: 10,5 puntu



Josexo Urrutia, iazko Zazpi Herrialdeak Txapelketan, Areson egin zen jaialdian, lgoa kidea begira duela. Aurten ere parte hartuko dute. J. A.

ERREDAKZIOA

Harri-jasotzaile berrietan Urrezko Txapelketa irabazi zuten Josexo Urrutia leitzarrak eta bere bikote Agirrek, herenegun Armentian jokatu zuten final estuan. Jaialdi berean hasi zen Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligako aurreneko saioan, berriz, Arrospide leaburuarrak lortu zituen puntu gehien.

Araba Euskarazko festaren baitan, herri kirol jaialdia egin zuten eta Leitzalderako eta Tolosalderako hagitz emaitza onak eskuratuta itzuli ziren bai Urrutia harri-jasotzailea eta baita Arrospide aizkolaria ere; izan ere, batek txapelketa bateko finala eta besteak eguneko saioa irabazi zituzten, hurrenez hurren.

Urrezko Harri-jasotzailearen txapela Urrutiak eta Agirrek jantzi zuten azkenik, baina ez borrokatu gabe: Lertxundi eta Telleria II.ari 200 kiloko aldea, hots, 2 altxaldigatik, irabazi zieten. 100 kiloko zilindro zaharrenekin, Urrutia eta Telleria II.a lehiatu ziren, eta berdinditu ziren; 100 kiloko kubikoarekin, berriz, Agirre eta Lertxundi (hau Eizmendiren ordezkariak) aritu ziren, hain zuzen ere, txapelketa erabakiko zuen saioa suertatu zelarik honako hau: Agirrek 17 altxaldi eman zizkion kubikoari, Lertxundik baino bi gehiago, gero bukaeran izan zuten 200 kiloko aldea orduantxe lortutakoa baitzen; izan ere, hirugarren proban, txanda librean 100 kiloko bolarekin egin zu-

ten saioan, berriz ere berdinditu ziren bi bikoteak. Horrela, bada, 6.900 kilo altxata, eta arerioek baino 2 altxaldi gehiago eginda soilik, baina haiek nahikoak, Urrutia eta Agirre dira berrien mailan Urrezko Harri-jasotzaileak.

Arrospide Ligako buru

Eta hurrengo asteetan zehar Urrezko Aizkolari Txapeldunek jokatu duten Ligako lehen-dabiziko saioan 10,5 punturik nagusitu zen Arrospide, Larretxea eta Mindegiaen aurka.

Leaburuarrak proba guztietan lortu zituen puntuak: zutikakoa eta bi 45 ontzekoetan (bat zutik) bina puntu eskuratu zituen, aurrenekoan Larretxea gelditu zelarik bigarren (puntu 1) eta bestean, Mindegia (puntu 1); kolpekakoaan, berriz, Larretxearekin berdinditu zenez, puntu eta erdina jaso zituzten biek hala biek eta Mindegiak bat ere ez; erlojupekoan, Larretxearen hurrena gelditu zen Arrospide, haren-tzat 2 eta berretzat 1 gehituz.

Horrela, Arrospide proba luze-rako 7,5 punturen jabe zelaririk, bigarren egitea nahikoa izan zuen, Ligako aurreneko jardunaldiko irabazten atera-tzeko. Bi kana-erdiko eta bi 60 ontzako ebaki beharreko lanean, aurrenekoak 5 puntu eskuratu zituen, Larretxeak kasu honetan; bigarrenak 3. Arrospiderentzat izan ziren eta hala 10,5 puntu osatu zituen saio bukaeran denera; eta hirugarrenak 1, Mindegiak jaso zuena.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Azken minututan kendu diote igotzeko aukera

Bertako zaletuek ere ikusi ez zuten penaltia adierazita, «arraro» galdu du Aurrerak

J. ASTIBIA

0-1eko emaitzaren jabe eta partidua bukatzeko 4 minutu falta zirenean, Aurrera Lurraldeko Lehenatasuneko mailan hanka bat zuela, ilusioz beteta ari zen lanean; herritik joandako zaletu mordoaren zorion eta animo oihu artean. Baina arbitroak partidurako bestelako bukaera erabaki zuen: 3 minututan, «izan ez ziren» penaltia eta falta eta jokalarik baten kanporaketarekin, 2-1eko emaitza igo zen markagailura, Mendigorriako taldearen alde, eta hala igorako txartela ere.

«Indartsu» zelairatu ziren leitzarrak, Aurrera futbol taldeko ordezkariak HITZARI atzo bertan baieztatu zituzten. Lehenengo zatian nagusi izan ziren. Mendi taldea urduri samar zegoen, konpromisoa ere handia zen eta; leitzarrak, berriz, aukerari eusteko uste osoarekin. Hala, gol aukera asko sortu zituen Aurrerak, baina baloia sareetara sartzen asmatu gabe. 30. minutuan, Mendiko jokalarik batek golera zihoan baloia eskuz gelditu zuen, ordea, eta zuzenean kanporatua izan zelarik, hortxetik sortu zen leitzarren partiduko gola: penaltiz, Antton Gomezek sartutakoa. Halaxe, lehenengo bidetik, aukerak sortugatik, golik gehitu gabe joan ziren atsedenera, «0-1ekoarekin itxaropenez beteta».

Bueltakoa ere, emaitzari eutsiz, Mendiren erasoko jokaldiei aurre eginez, Abruza atezainaren geldialdi bikaine-kin, bigarren zatia ere ildo bere-tik zihoan, «0-1ekoarekin lanak egintxe genituen», baieztatuz. Denbora horretan, neke-a ere nabarmena zen jo-

kalarien artean eta I. Bengoetxeak, U. Sagastibeltzak eta I. Urriagak zelaia utzi behar izan zuten.

Epailearen erabakiz

Partidua bukatzeaz zegoela, 86. minutuan, ordea, Aurreraren area ertzean, taldeko ordezkariak esan zuten «inoiz ikusigabekoa» gertatu zen: «Bi taldeetako jokalarik bana, galdutako baloi baten atzetik lasterka zihoaztela, biak erori ziren. Partiduko epaileak Aurreraren aldeko falta adierazi zuen; falta ateratzerakotan zirela, marrazaina epailearen-gana hurbildu eta honek iriztia aldatu eta Aurreraren aurkako penaltia adierazi zuen. Epaileak aurretik hartutako erabakia aldatu egin zuen», esan zuten. «Lau minutu falta zirela izan ez zen penaltia adierazi zuten; bertako jendea ere arbitroari halakorik ez zela izan esanez aritu zen, harri-garri. Sekulako haserrealdia izan zen». Hor etorri zen banako berdinketa.

Horren ondoren «ez genuen erreakzionatu», aitortu zuten atzo. Eta, minutu bat falta zela, berriz ere «izan ez zen falta bat» adierazi zuten epaileak, eta Aizagirre kanporatu egin zuten, gainera. Hortik etorri zen Mendiren aldeko 2-1ekoak.

«Lapurreta bat izan da», baieztatu zuten atzo, «bertako jendeak ere gure alde egin zuten eta», zioten: «Mendiren aldetik kiroltasunez jokaturako partida izan zen; baina arbitroen erabakiak ikusita, parra egin diguten sentsazioa daukagu, ikusi genituen 'gauza arraro' batzuk tarteko». Atzo iluntzean biltzekoak ziren neurrien bat hartu behar duten ere ez erabakitzeak.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA

DEIALDIAK

Berastegi. Odol-ematea. 18:30ean, eskolan.
Ibarra. Festa Batzordearen bilera sanbartolomeak antolatzeko. 20:00etan, udalbatzar aretoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Aterpeak. Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailearen 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Kultur tailerretako ikasleen erakusketa. Uztailearen 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Yolanda Artolaren margolanak, Fronton kafetegian.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. Adi Guri.
 21:00-22:00. Zaharrak berri.
 22:00-23:00. Street noise.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

VILLABONA ▶ Udalak atzo banatu zituen bertso eta ipuin lehiaketako sariak LHko 3. mailatik hasi eta DBHko 4. maila arteko ikasleei

ERREDAKZIOA

Bertso eta ipuin lehiaketaren sariak banatu zituen atzo Villabonako Udalak Gurea antzokian. Amaia Agirre bertsolariak eta Iñaki Zalakain Loatzo musikariak eskolako zuzendariak abestu zituzten izenak, aretoan bilduta zeudenek irrikaz entzuten zuten bitartean. Epaile lanetan, bertsolari billa-bonatarraz gain, Martin Aramendi eta Felix Irazustabarrena aritu ziren, eta ipuinen arloan Ixabel Agirresarobe. Saritu bakoitzak opari bat eramane zuten eta baita txalo zaparrada ere, batez ere bere ikastetxe-koen aldetik. Hain justu, txalo zaparrada horiek saridun bat baino gehiago lotsarazi zituen oholtzara igotzean.

Guztira, 24 sari banatu zituzten. Ondorengoak izan ziren sarituak, lehenengotik hirugarrenera, hurrenez hurren: LHko 3. eta 4. mailan, bertso lehiaketan, Naiara Larrañaga, Lidia Maiz eta Jon Irastorza; ipuin lehiaketan, Mirari Ugarte, Miriam Hernandez eta Maider Ormazabal; LHko 5. eta 6. mailakoetan, bertso lehiaketan, Eñaut Urkola, Aitor Otamendia eta Mikel Otaño; ipuin lehiaketan, Kristina Sanchez, Aitor Gisasola eta Eider Urkola; DBHko 1. eta 2. mailan, bertso lehiaketan, Irati Olazabal, Unai Mendizabal eta Kepa Iguaran; ipuinetan, Manex Arrastoa, Aitor Lopez eta Cynthia Santa Cruz; DBHko 3. eta 4. mailan, bertsoetan, Oihana Iguaran, Eneko Garin eta Axel Otaegi; ipuin lehiaketan, Irune Reguero, Imanol Urkola eta Eider Amenabar.



LHko 3., 4., 5. eta 6. mailan sariak jaso zituzten ikasleak, bereaien opariekin. I. GARCIA



Opariak eskuan zituztela, DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasle saridunak. I. GARCIA

hitza Harpidedunen txokoa

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu

1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 laguntzatzat
2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
 Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb. 5 • TOLOSA**
 Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

1 TENERIFERA BIDAIA
 2 laguntzatzat astebeteko egonaldia

2 OTORDU EDERRA
 2 laguntzatzako Tolosako Zumeta jatetxean

bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....
 Izena.....
 Abizenak.....
 Helbidea.....
 Herria.....P.K.....
 Telefonoa.....
 Peletronikoa.....

LAUTREK bidaia agentzia
 korreo kalea, 52 • TOLOSA
 Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
 Faxa: 943 67 39 12
 zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
 Tel.: 943 88 28 93

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.